IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



# Jardueren Oroitza
# 2019

# JARDUEREN OROITZA
# 2019

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

© Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa

Edita: Instituto Vasco de Administración Pública
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea

ISBN: 978-84-7777-591-1

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Grafo, S.A., Avda. Cervantes, 51-edificio 21 - 48970 Basauri (Bizkaia)

# AURKIBIDEA


1. Aurkezpena 7
2. IVAPen antolakuntza-eredua 11
3. Kudeaketa arloko mugarri eta lorpen garrantzitsuenak 21
4. Zerbitzuak eta produktuak 27
5. Argitalpenak 55
6. IVAPeko kideen parte-hartzea biltzarretan, jardunaldietan eta adituen foroetan 59

# 1. AURKEZPENA

IVAP Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen 2019. urteko jardueren memoria aurkezten dugu, aurreko urteetan bezala herritarrei labur eta garden azaltzeko zein den erakundearen jarduera.

IVAPen jarduerak lau esparru nagusi ditu:

- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileak hautatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileak trebatzea.
- Administrazioan euskararen erabilera normaliza dadin bultzatzea, itzulpengintza ofiziala sustatzea, eta euskarazko terminologia juridiko-administratiboa ezarri eta zabaltzea.
- Arlo linguistikoan, arlo juridiko-administratiboan eta kudeaketaren hobekuntzaren arloan aholkuak ematea eta ikertzea.

2019an, IVAPek bere kudeaketaren kanpo-ebaluazioa egin du; Euskalit Ebaluazio Klubeko lantaldea arduratu da hura gauzatzeaz (Euskalit, Euskal Autonomia Erkidegoko antolakundeetan kudeaketa aurreratua sustatzeko, lehiakorrak izaten laguntzeko eta Euskadiren garapen jasangarria bultzatzeko antolakundeen Fundazioa). Ebaluazio-prozesu horren bidez, kualifikazio tekniko gorena duten kanpoko profesional independenteek Erakundearen kudeaketa aztertu dute, sistematikoki eta globalki. Horri esker, gure antolakundearen KAE kudeaketa aurreratuko ereduaren ezarpenari buruz ikuspegi objektiboa jaso dugu.

Bigarren aldia da kudeaketaren kanpo-ebaluazioko prozesua egiten dela IVAPen. Izan ere, 2012an, EFQM europar ereduaren zilarrezko Q-a lortu zuen Erakundeak, hura ere Euskalitek kudeatua.

Prozesuaren onurarik handiena zera da, ahalbidetzen duela jakitea zer aurrerapauso egin diren antolakundearen kudeaketan, zein diren indarguneak eta zer hobetu behar den ereduaren alderdietako bakoitzari dagokionez: Estrategia, Bezeroak, Pertsonak, Gizartea, Berrikuntza eta Emaitzak.

Oraingo honetan, zilarrezko A aintzatespena (maila garatua I) lortu du Erakundeak, KAE kudeaketa aurreratuko ereduaren arabera, eta horrek bi gauza esan nahi ditu: batetik, IVAPen jardunari aitortza publiko garrantzitsua egin zaiola, eta, bestetik, hobetu behar diren arloak identifikatu direla, eta hori funtsezkoa izango da Erakundeak 2020an egingo duen gogoeta estrategikoaren prozesuari begira, zeinaren amaieran 2024ra bitartean aplikatuko den plan estrategikoa onartuko baita.

Bestalde, 2019. urtean nabarmen ugaritu dira enplegu publikora irispidea izateko hautaketa-prozesuen deialdiak. Izan ere, birjartze-tasak aplikatu direnez eta azken urteotan lan-eskaintza publikoak geldituta egon direnez, plantilla zahartu egin da, eta funtzio publikoaren behin-behinekotasuna handitu. Beraz, badirudi funtzio publikoan sartzeko gero eta prozesu gehiago egingo direla datozen urteetan, eta, horri esker, gizartearen eskaerei erantzun ahal izango dieten profesionalak sartuko dira gure administrazioetan.

IVAPek badaki gai hori oso garrantzitsua dela, eta *Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria*n monografia bat argitaratu du, non, hainbat artikuluren bidez, enplegatu publikoen hautaketa-prozesuen egungo egoera eta etorkizuneko erronkak aztertzen baitira.

Horrez gainera, «Herri Administrazioetako hautaketa-prozesuak: Europar Batasuneko esperientziak, planteamendu berriak garai berrietarako» jardunaldiak antolatu genituen apirilean. Topaketek balio izan zuten gure inguruko beste demokrazia batzuetan langile publikoak hautatzeko dauden sistemen analisi konparatua egiteko.

Hurrengo orrietan arloz arlo eta zehatz-mehatz dago azalduta IVAPek 2019an egin duen jarduna, baina merezi du gertaera garrantzitsu batzuk nabarmentzea, horrenbeste daturen artean oharkabean pasa ez daitezen:

- Euskara normalizatzeko hartua dugun konpromisoaren ondorioz, IVAPek hizkuntza-gaitasunarekin zerikusia duten 99 prestakuntza-ekintza antolatu ditu, eta haietan 1.033 langile publikok parte hartu dute.
- Guztira, 17.000 langilek baino gehiagok parte hartu dute Erakundearen zerbitzuek –Prestakuntza Zerbitzuak, Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio Zerbitzuak eta EVETUk– diseinatu eta kudeatutako prestakuntza-ekintzetan, eta gogobetetze orokorraren indizea serie historikoan lortutako inoizko handiena izan da: 10etik 8,2 puntu lortu ditugu.
- 2019. urtean, garapen profesionala sustatzeko prestakuntza-laguntzen programarekin jarraitu dugu, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileen garapen profesionalerako prestakuntza-planak bultzatzeko asmoz. Prestakuntza-planen hartzaileak gure autonomia-erkidegoko administrazio guztietako enplegatu publikoak izan dira; hau da, 80.000tik gora langile.
- Erakundeak 225 hautaketa-prozesutan parte hartu du, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren beste maila batzuetako 71 entitaterekin batera. Nabarmentzekoa da 72 kasutan proba psikoteknikoak edo elkarrizketak egiten lagundu duela.
- 861 lagunek hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu dute IVAPek antolatutako probetan. 2019. urtean, bi deialdi orokor eta 12 deialdi bateratu egin dira (lurralde historiko bakoitzean, lau), eta bi deialdi berezi (Ertzaintzaren 28. promozioa eta Eusko Jaurlaritzako menpeko langileen 2018-2019ko lan-poltsa).
- 11.602 itzulpen- eta zuzenketa-espediente izapidetu, eta, guztira, 23 milioi hitz baino gehiago itzuli dira.
- 21 argitalpen editatu dira.

- Urte horretan zehar Erakundearen web orrialdea eguneratu da, eta haren erabilerraztasuna berregituratu da. Guztira, hiru milioi eta erdi bisita baino gehiago izan ditu webak.

Azken batean, IVAPek 2019. urtean egindako jarduera guztien xehetasunak azaltzen dira dokumentu honetan. Gogoan izan behar da jarduketa guztien azken helburua Euskadiko administrazio publikoekin elkarlanean aritzea dela, herritarrei zerbitzu efizienteagoak, kalitate gorenekoak eta elebidunak eskaintzeko.

Azkenik, ezinbestean aipatu behar da hori guztia posible izan dela Erakundean lan egiten duten 125 gizon-emakumeen ardura eta profesionaltasunari esker, zeren eta langileak egunero ahalegintzen baitira beren eginkizunak betetzen zerbitzu publikoaren balio partekatuen arabera. Gure eskerrik beroena Erakundeko pertsona guztiei.

IVAP-EKO ZUZENDARITZA



IVAPeko zuzendaritza-taldea

# 2. IVAPen ANTOLAKUNTZA-EREDUA

IVAP, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzaren oraingo Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikia. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zerbitzura dihardu eta hiru jardun-eremutan sailka daitezke IVAPen xedeak:

- **Giza Baliabideak**: administrazio publikoen zerbitzurako langileak hautatzea eta prestatzea.
- **Euskara**: administrazio publikoen zerbitzurako langileen euskalduntzea, itzulpenak, interpretazioa, terminologia eta administrazio-hizkeraren normalizazioa.
- **Azterlanak eta Argitalpenak**: ikerlanak egitea eta eskolak ematea, bai administrazioaren inguruan, era zabalean, bai euskal autonomiaren berezitasunen inguruan zehazki, baita liburuak zein aldizkari espezializatuak argitaratzea ere.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Lege Jaurbideari buruzko uztailaren 27ko 16/1983 Legean, IVAPen egiturari eta zereginei buruzko alderdi esanguratsuak xedatu ziren; hona hemen:

- Zortzi helburu zehazten ditu eta, helburu horiek aurrera eramateko, atalak, sailak edo zerbitzuak antolatzeko bidea zabaltzen du.
- Erakundearen aginte-erakundeak sortzen ditu eta zehazten du nola egongo diren osaturik eta zein eginkizun izango duten. Zaingo Batzordea eta Zuzendaritza dira erakunde horiek.
- IVAPek bere aurrekontua du.
- Lege horrek Oñatiko Unibertsitate Zaharraren eraikinean ezartzen zuen IVAPen egoitza; Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzeko 2/2007 Legegintzako Dekretuak, ordea, hori aldatu egin zuen eta IVAPen egoitza Gasteizen ezarri.

### 1. TAULA. Zaingo Batzordeko kideak

| |
|---|
| **Zaingo-batzordearen presidentea** |
| Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko sailburua |
| **Zaingo-batzordearen presidenteordea** |
| Eusko Jaurlaritzako Erakunde Harremanetarako sailburuordea |
| **Karguagatiko kideak** |
| Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoko sailburuordea<br>IVAPeko zuzendaria<br>IVAPeko idazkari nagusia |
| **Lurralde historikoen ordezkari bana** |
| Arabako Foru Aldundiko Funtzio Publikoko zuzendaria<br>Bizkaiko Foru Aldundiko Funtzio Publikoko zuzendaria<br>Gipuzkoako Foru Aldundiko Funtzio Publikoko zuzendaria |
| **Toki administrazioaren hiru ordezkari, EUDELek izendatuta** |
| **Administrazioko langileen hiru ordezkari, sailburuak izendatuta** |

## MISIOA

IVAPen MISIOA da Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioekin lankidetzan aritzea, herritarrei zerbitzu efiziente, kalitatezko eta elebiduna emateko. Lankidetza hau zerbitzu publikoaren balio komunetan oinarritzen da, eta honako hauen bidez gauzatzen:

- Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zerbitzurako langileak hautatu eta prestatu.
- Administrazioan euskararen erabileraren normalizazioa eta itzulpengintza ofiziala bultzatu, eta euskarazko terminologia juridiko-administratiboa finkatu eta zabaldu.
- Hizkuntzaren, lege eta administrazioaren, eta kudeaketaren hobekuntzaren arloetan aholku eman eta ikertu.

## IKUSKERA

IVAPek euskal herri-administrazio guztiekin lan egin nahi du, eta, bere marka-irudia sendotuz, erreferentzia-zentro izan nahi du bere lan-esparruetan, produktu eta zerbitzu berritzaile eta kalitatezkoen eskaintzari esker, bezeroari zuzenduta eta teknologia berrien erabilera aurreratuan oinarrituta.

IVAPek autonomia nahikoa izan nahi du herri-administrazio guztiekiko, bere Misioa osorik betetzeko.

Halaber, bere egitura sortzen zaizkion behar eta erronken arabera antolatzeko gai izan beharko du, kudeaketa aurreratuaren ildotik. Hori guztia lortzeko, IVAPek pertsona gaitu, inplikatu eta baloratuek osatutako taldea beharko du.

## BALIOAK

IVAPek, araubide juridikoak finkatzen dituen balioez gain, hots, herritarrentzako zerbitzu publikoaren etika, efikazia, efizientzia, gardentasuna, objektibotasuna, erakunde barruko zein erakunde arteko lankidetza, eta pertsonen arteko tratu-berdintasuna, honako balio hauek bultzatuko ditu:

- Bezeroarenganako orientazioa.
- Euskararen erabileraren normalizazioarekiko konpromisoa.
- Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza.
- Parte-hartzea eta talde-lana.
- Profesionaltasuna.

2017-2020 epealdian IVAPek honako balio hauek landu nahi ditu bereziki: berrikuntza, euskararen erabileraren normalizazioarekiko konpromisoa, efizientzia eta parte-hartzea, eta talde-lana. Era berean, azaldutako balioekin bat etorriko den lidergo-estiloa bultzatu nahi du.

# EGITURA




## ZUZENDARITZA

IVAPeko zuzendaria, besteak beste, erakundearen ordezkaria izango da, eta bertako langileen burua. Berak emango ditu egiaztagiriak, tituluak eta diplomak; gainera, gastuak baimendu eta ordainketak aginduko ditu.

## KOORDINAZIOKO ETA KUDEAKETAKO IDAZKARITZA

Zerbitzu eta atal guztiak koordinatuko ditu, eta zuzendaria ordezkatuko du hura ez dagoenean. Bere mendeko zuzenak dira Azterlan eta Argitalpen Zerbitzua, EVETU (Lurralde eta Hiri Ikasketarako Euskal Eskola) eta Zerbitzu Orokorrak.

## HAUTAKETAKO ETA PRESTAKUNTZAKO ZUZENDARIORDETZA

Hautaketaren eta prestakuntzaren gainean egin beharrekoak egitea, horixe du egitekoa. Horretarako, Hautaketa Zerbitzua eta Prestakuntza Zerbitzua ditu.

## EUSKARAKO ZUZENDARIORDETZA

Euskararen erabilera normalizatzea, itzulpengintza eta euskarazko administrazio-hizkera finkatzea. Horra zuzendariordetza horren eginkizunak. Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio Zerbitzuak eta IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak osatzen dute zuzendariordetza hau.

## PERTSONAK

IVAPen 125 pertsonak lan egiten dute, 87 emakumek eta 38 gizonek, modu honetan banatuta:

- Zuzendaria, emakumezkoa.
- Idazkari nagusia eta bi zuzendariorde, bi gizonezko eta emakumezko bat.
- Goi-kargudunaren idazkaria (gizonezkoa).
- Sei zerbitzuburu, hiru emakume eta hiru gizon.
- Zortzi arloburu, lau emakume eta lau gizon.
- 76 teknikari: 55 emakume eta 21 gizon.
- 28 administrazio-langile, 22 emakume eta sei gizon.
- Bi mendeko, emakume bat eta gizon bat.

IVAPeko kideen% 72k parte hartzen du martxan dauden bederatzi batzordeetan, 25 prozesu-taldeetan edota lan-taldeetan.




IVAPeko zuzendaritza-taldea eta langile batzuk

## LANTOKIAK ETA HELBIDEAK

Langile gehienek Gasteizko egoitza dute lantoki, Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia (Lakua), alegia. Hala ere, herritarrek eskueran dituzte IVAPen beste hiru egoitza hauek ere: Bilbokoa, Donostiakoa eta Oñatikoa; bizilekutik gertuago egin ditzakete kudeaketak.

**IVAP - Gasteizko egoitza**
Donostia kalea 1
01010 Vitoria-Gasteiz

**IVAP – Oñatiko egoitza**
Unibertsitateko etorbidea
20560 Oñati

**IVAP – Bilboko egoitza**
Recalde zumarkalea 18, 1
48009 Bilbao

**IVAP – Donostiako egoitza**
San Bartolomé kalea 28
20007 Donostia

## KUDEAKETA-SISTEMATIKA

IVAP 2001ean hasi zen Kudeaketa aurreratuaren kultura ezartzen. Orduan, zuzendaritzak apustua egin zuen erakunde osoa hartuko zuen etengabeko hobekuntza-proiektu baten alde. Garai hartan, EFQMrako ereduari jarraituz; orain, Euskaliteko Kudeaketa Aurreratuko Eredua (KAE) ispilu duela. Aipatu beharra dago, gainera, IVAPek, gaur egun, zuzenean laguntzen duela «Aurrerabide» Eusko Jaurlaritzako proiektua, Euskadiko administrazio orokorrean kudeaketa aurreratua ezartzeko proiektua, hain zuzen ere, non Institutua aitzindari eta erreferentea den.

2005etik lau urteko lau plan estrategiko onartu ditu IVAPek, urteko kudeaketa-planetan zabaltzen direnak. Eta planak burutzeko hausnarketa estrategikoa Estrategia Batzordean egiten da, non Zuzendaritza osoa kide den eta zuzendaria, hain zuzen ere, batzordeko arduraduna. Beraz, Zuzendaritzak hausnarketa-prozesu osoa bultzatzen eta bideratzen du. Hausnarketan, bestalde, parte hartzen dute Institutuko ebaluatzaileek, hausnarketa-taldeak eta kontraste-taldeak (azken hori IVAPeko 20 pertsona liderrek osatzen dute). Azkenik, esan behar da lankide guztiek parte hartzeko aukera izan dutela bai AMIAk aztertzen, bai azken dokumentuari ekarpenak egiten. Azken hausnarketa estrategikoan, 2016an, alegia, lider guztiak elkarrizketatu ziren, haien iritzia ezagutu nahian, erakundearen iraganaren ingurukoa, baita kudeaketaren etorkizunari buruzkoa ere.

Hauek dira Erakundeak burutu dituen aurrerapauso eta jarduera batzuk:

*Estrategia:*

- Lau hausnarketa estrategiko (2004, 2008, 2012 eta 2016) eta dagozkien lau urteko plan estrategikoak. Gaurkoa 2017-2020 Plan Estrategikoa da.
- Urteroko kudeaketa-planak, plan estrategikoen hedapena.
- EFQM kalitate-eredu europarraren arabera, lau autoebaluazio.
- KAE Kudeaketa Aurreratuaren Ereduaren arabera, autoebaluazio bat.
- EFQM kalitate-eredu europarraren arabera, kanpoko ebaluazio bat: zilarrezko Q.
- Kudeaketa Aurreratuaren Ereduarekiko kanpo-ebaluazioa eta Zilarrezko A aitorpena (Garatua I).

*Bezeroak:*

- Zerbitzu-kartak: erakundeak sei karta ditu, urtero berrikusten ditugu eta bi urtez behin ebaluatzen dituzte Q-epea kudeaketa aurreratuaren aldeko euskal erakunde publikoen sareko ebaluatzaileen Klubak, non IVAPek parte hartze aktiboa duen 2006tik. Hauek dira zerbitzuetako kartak:
  - Hautaketa: hiritarrei zuzenduta.
  - Hautaketa: administrazioei zuzenduta.
  - IZO, Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala.
  - Prestakuntza.
  - Liburutegia/Dokumentazio-gunea.
  - Hizkuntza-eskakizunak ebaluatzeko karta.
- Zerbitzuen katalogoa: urtero berrikusten dugu.
- Bezeroen beharrak eta espektatibak ezagutzeko hiru azterketa (2008an, 2012an eta 2017an).
- Bezero instituzionalen gogobetetasuna neurtu da 2005, 2007, 2010, 2012 eta 2015 urteetan, inkesten bidez. Eusko Jaurlaritzako sailak, foru diputazioak, udalak eta hainbat erakunde publiko izan dira IVAPeko zerbitzuak eskatu dituztenak edo produkturen baten jasotzaile izan direnak, hala nola Osakidetza, Arartekoa, Eusko Legebiltzarra, Ertzaintza, Lanbide… 2017an, seigarren aldiz neurtu dugu bezero horien gogobetetasuna, oraingo honetan bisitak eginez. Bezeroen artean, lagin batengana hurbildu gara eta, ebaluazioarekin batera, haien beharrak ezagutzeko aukera izan dugu.
- Zuzeneko erabiltzaileak diren bezeroen gogobetetasuna neurtu da, IVAPeko zerbitzuak jaso dituzten euskal administrazioetako langileak izaten baitira (ikastaroetan, jardunaldietan eta abarretan parte-hartzaile) eta kasu zehatz batzuetan (langileak hautatzeko probetan, jardunaldi jakin batzuetan…) herritar guztiak dira. Horiei guztiei jasotako zerbitzuaren gogobetetasuna adierazteko inkesta betetzeko eskatzen diegu.

- IVAPeko langilea Erakundeko zeharkako zerbitzuen bezeroa denean, barne-bezeroaren gogobetetasuna neurtu dugu. 2018an, bigarren aldiz, hainbat zerbitzuren hartzaile bezala, hala nola ordutegi-kontrola, itzulpengintza, laguntza juridikoa eta Prestaivap ebaluatzeko aukera izan dute IVAPeko langileek.

*Pertsonak:*

- Harrera eta agurra egiteko plana.
- Prestaivap: Institutuko pertsonen prestakuntza plana. IVAPeko langileen eskarietatik eta behar-diagnostikotik aurrera lantzen den urteroko plana da.
- IVAPeko kudeaketa aurreratuaren ereduaren urteko aurkezpen-saioak.
- IVAPeko ebaluatzaileen taldea sortzea, eta prestakuntzaren planifikazioa eta lankidetza Kudeaketa aurreratuaren ereduaren Euskaliteko ebaluatzaileen Klubarekin eta Eusko Jaurlaritzako Kudeaketa aurreratuaren euskal eredua den Aurrerabide proiektuarekin.
- IVAPeko Zerbitzuen kartetako ebaluatzaileen taldea abian jartzea eta Q-epeako Zerbitzu-kartak ebaluatzeko taldearekin lankidetza finkatzea.
- 25 prozesu-talde, kudeaketarako, jarduerarako eta laguntzarako bederatzi batzordetan sartuta, «Pertsonak» batzordean, besteak beste.
- Lantalde egonkorrak edo proiektuekin lotuta.
- Bi urtez behin, IVAPeko pertsonen gogobetetasunaren neurketa. 2018an, seigarren aldiz egin dugu. Ostean, hobekuntza-plana egiten dugu beti.
- Barne-komunikaziorako mapa aldizka berritzen dena.
- Lidergoa: definizioa eta konpetentzien berrikusketa. Prestakuntza eta 360 graduko ebaluazioa.

*Berrikuntza:*

- Prestakuntza: laguntzeko, prestatzeko eta aholkuak emateko sistematika (SAC, prozedurari buruzko eskuliburuak).
- Barne-bezeroaren gogobetetasunaren ebaluazioa.
- Zeharkako prozesu-mapa.

*Gizartea:*

- Konpromiso-diplomak 2009 eta 2011n.
- Aintzatespenak, zuzenak eta prentsakoak.
- Bekak, laguntzak eta ikerketa-lanak.
- Ingurumenarekiko konpromisoa.
- Gobernu irekia («Open data»): datu berrerabilgarrien erakusketa publikoa (itzulpen-memoriak, beste administrazio batzuen lan-eskaintza publikoak…).
- Gizartean, IVAPek duen konpromisoaren lehenengo neurketa.

*Emaitzak:*

- Aginte-taula Integrala zeina plan estrategiko bakoitzean berrikusten den. Adierazle estrategikoen urteroko berrikusketa.

Azkenik, nabarmentzekoa da IVAPeko gaurko prozesu-mapa, Institutuaren jarduera oinarritzen den zerbitzu eta produktuetara egokituta; zehazki, bere zerbitzuak jasotzen dituzten administrazioen eta hiritarren inguruan egituratutako mapa. Izan ere, aurrerapen handia da aurreko mapekin alderatuz, non organigrama ardatz nagusia zen.

## AGINTE-TAULA INTEGRALA

Aginte-taula Integrala kudeaketa-tresna bat da, IVAPen jarduera kontrolatzeko eta neurtzeko adierazle batzuez osatua. Bada, tresna horren bidez, aldirako helburuen jarraipena egitea errazten da.

2017-2020 aldirako Plan Estrategikoan, IVAPek aldi horretarako ezarri dituen bost erronkak definitu dira. Ildo horretan, aipatutako erronkak gorpuzten dituzten helburu estrategiko eta estrategien betetze-mailaren jarraipena eta ebaluazioa egite aldera, IVAPek Aginte-taula integrala du, bost erronkekin lerrokatuta.

2017-2020 aldirako Plan Estrategikoaren erronkak eta helburu estrategikoak berrikusi eta adostu ondoren, aginte-taulako adierazle guztiak aztertu eta egokitu ditugu, aipatu helburu estrategikoen ebaluazioa errazteko.



IVAPeko langileak kudeaketa aurreratuaren zilarrezko A aitorpena lortu izana ospatzen

# 3. KUDEAKETA ARLOKO MUGARRI ETA LORPEN GARRANTZITSUENAK

## AURREKONTUA ETA JARDUERARI BURUZKO DATU NAGUSIAK

- Aurrekontua: 19.328.000 €.
- 17.688 parte-hartzaile prestakuntza-jardueretan (Prestakuntza arloa, EVETU eta Hizkuntza-prestakuntza arloa).
- Prestakuntzarako dirulaguntzen programa, erakunde publikoetako 82.687 pertsonentzat.
- 225 parte-hartze hainbat erakundetako hautaketa-epaimahaietan.
- Guztira, 23.078.956 hitz itzuli eta/edo berrikusi dira.
- 14.792 harpidedun, guztira *Administrazioa Euskaraz* aldizkarian.
- 97.790 harpidedun, Euskal Autonomia Erkidegoko lan-eskaintza publikoei buruzko informazioa jasotzen dutenak.
- 21 argitalpen (10 liburu eta 11 aldizkari-ale (Administrazioa Euskaraz, Herri Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria eta Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria).
- 863 funtzionariok egiaztatu dute hizkuntza-eskakizunen bat.
- 29.781 liburu eta aldizkari espezializatu liburutegian.
- 3.849.570 bisita webgunean.

## 2017-2020 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOA

Laugarren plan estrategikoa aurreko 2013-2016 Plan Estrategikoaren ebaluaziotik ondorioztatutako emaitzen fruitua da, batetik, eta IVAPek 2016an egin zuen hausnarketa estrategikoarena, bestetik.

2017-2020 Plan Estrategikoak berrikusi eta eguneratu egin ditu IVAPen Misioa, Balioak eta Ikuskera, eta bost erronka hauek finkatu ditu:

- Bezeroari begirako erakundea.
- Erakunde berritzailea.

- Kudeaketa aurreratua.
- Pertsona gaituak, inplikatuak eta baloratuak.
- IVAP marka.

Hausnarketa estrategikoa, bestalde, IVAPeko pertsonen eta taldeen parte hartzean oinarritu da. Parte-hartze hori antolatzeko, zenbait talde sortu ditugu eta hausnarketa-prozesu osoa bultzatu eta bideratu du zuzendaritzak. Talde eragilea IVAPeko ebaluatzaileez osatuta dago eta dokumentuak lantzea izan du eginkizun nagusia, kanpo-aholkulariekin batera. Hausnarketa-taldeak balidatu ditu fase bakoitzeko dokumentuak eta bateratu ditu ekarpenak. Azkenik, kontraste-taldea IVAPeko lider guztiek osatu dute eta hark onartu ditu azken dokumentuak. Ezin da ahaztu IVAPeko pertsona guztiek parte hartzeko aukera izan dutela gogoetako une gakoetan, hala nola AMIAk aztertzen, Misioa, Ikuskera eta Balioak berrikusten eta azken dokumentuari ekarpenak egiten.

2013-2016ko Plan estrategikoaren betetze-maila aztertzea izan da hausnarketa estrategikoaren lehenengo fasea; hots, diagnosia bera. Horretarako, helburu estrategikoak eta estrategiak noraino bete diren aztertu dugu. Ondorioz, lorpenak eta gabeziak ezagutu ditugu. Halaber, denboraldi estrategiko horretako IVAPen jarduera analizatu dugu: IVAPeko jarduera-eredua, antolakuntza-eredua, kudeaketa-sistematika, AMIAk eta Arrakastarako Faktore kritikoak, Zerbitzuen katalogoa eta adierazle estrategikoen eta pertsonen gogobetetze inkestaren emaitzak.




Garbiñe Doval Euskarako zuzendariordeak IVAPeko kudeaketa aurreratua azaldu zuen Gipuzkoako Foru Aldundian

## KUDEAKETA-PLANA

Aurreko ekitaldietan bezala, 2019ko Kudeaketa-plana deritzon agiria egin zen, 2017-2020 aldirako Plan Estrategikotik zetorrena, hain zuzen ere. Kudeaketa-planean, batetik, 2017ko ekitaldiko kudeaketaren balantzea egin zen eta, bestetik, 2019. urterako planifikatutako helburuak eta ekintzak bildu ziren: hala plangintza estrategikotik datozenak, nola IVAPen kudeaketa-sistematikaren funtsa diren prozesuetako bakoitzean sortutakoak. Halaber, kudeaketa-plan honek, Aginte-taula Integralean ezarritako helburuen betetze-mailaren ebaluazioa biltzeaz gain, 2020. urteari zegozkion helburuak ezarri zituen.

## EBALUAZIOAK

2019an, IVAPek kudeaketaren kanpo-ebaluazioa burutu du, Euskaliteko Ebaluatzaileen Klubeko talde baten laguntzarekin. Bikaintasunerako Euskal Fundazioa da Euskalit eta erakundeetan Kudeaketa aurreratuaren erabilera sustatzeko eta, hortaz, Euskadiren lehiakortasunari eta garapen iraunkorrari laguntzeko xedea du. Kanpo-ebaluazioa erakunde baten kudeaketaren azterketa orokorra eta sistematikoa da. Kanpoko ebaluatzaile-talde independiente batek egiten du, kualifikazio handia duten profesionalak dira eta ikuspegi objektiboa erakusten dute, kudeaketa aurreratuaren ereduaren arabera. Kanpo-ebaluazioaren abantaila nagusia da erakunde baten kudeaketa maila ezagutzen laguntzen duela, ereduaren bost elementuetan indarguneak eta hobetzeko arlo nagusiak identifikatuz, hala nola, Estrategia, Bezeroak, Pertsonak, Berrikuntza, Gizartea eta Emaitzak elementuetan.




Maite Iruretagoiena IVAPeko zuzendariak zilarrezko A aintzatespena jaso zuen Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publikoko eta Autogobernuko sailburuaren eskutik, Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Sariaren emate ekitaldian

IVAPek egiten duen bigarren kanpo-ebaluazioa izan da hura, baina Euskaliten kudeaketa aurreratuaren ereduaren araberako lehenengoa. 2012an, ordea, EFQM kalitate-eredu europarraren arabera lortu zuen IVAPek Zilarrezko Qa, hori ere Euskalitek kudeatua.

Kanpo-ebaluaziorako prozesua Zuzendaritzaren ardura izan zen, IVAPeko sei lagunek osaturiko ebaluatzaileen taldearen laguntzarekin. Gainera, prozesu osoan erakundeko pertsona guztien beharrezko inplikazioa izan dugu.

Kanpo-ebaluazioaren emaitzak aztertzea ezinbestekoa izango da IVAPek 2020an egin behar duen hausnarketa estrategikoaren prozesuan. Prozesu horri esker, 2024ra arte zabalduko den plan estrategikoa onartuko du Institutuak.

IVAPek, 2019an, zerbitzu-kartak ebaluatzeko eskaera egin dio Q-epea kudeaketa aurreratuaren konpromisoa duten Euskadiko erakunde publikoek osatutako taldeari, IVAP bertako kidea baita 2006tik. Q-epeak berezko metodologia sortu du erakunde laguntzaileen zerbitzu-kartak ebaluatzeko eta, horren bidez, zerbitzu-kartaren bi urtez behineko ebaluazio objektiboa, errepikagarria eta independentea bermatzen du. 2019an, Zerbitzu-karten «Q-epea» egiaztagiri bana eman zien IVAPeko bi kartari: Prestakuntza Zerbitzuari eta Liburutegia eta Dokumentazio-gunearen Zerbitzuari.




2019an, «Q-epea» egiaztagiria lortu zuten bi zerbitzu-karteetako arduradunek diploma jaso zuten

## AITORPENAK ETA ESKER ONAK

2019an, 19 aitorpen erregistratu ditu IVAPek eta horietatik hamarrek eskerrak eman nahi izan dizkiote gure erakundeari jasotako zerbitzuagatik, hain zuzen ere. Besteak, IVAPek egindako aitorpen formalak izan dira, erakundeak modu sistematizatuan egiten dituen aitorpenak, erakundearen eta langileen arteko harremana indartzeko asmoz, portaerek eta lorpenek helburu estrategikoekin bat egiteko estrategiaren barruan. Zehazki, dedikazio berezia, jarduera bikaina edota polibalentzia eta malgutasun funtzionala izateagatik egin dira aipatu aitorpen formal horiek.

Halaber, IVAPek omenezko aintzatespen ekitaldia egin zuen eta Xabier Amatria Administrazio Hizkera arloburua saritu zuen, IVAPen 25 urte eman dituelako.

Euskalitek urtero antolatzen duen Kudeaketa Aurreratuaren 25. Europar Astearen esparruan antolatutako ekitaldien barruan, Gobernantza Publikoko eta Autogobernuko Sailak IVAPen ibilbidea nabarmendu zuen, eta Maite Iruretagoiena zuzendariari aintzatespen bat eman zion egindako lanarengatik eta euskal administrazio orokorraren barruan erreferente izateagatik.




Maite Iruretagoienak kudeaketa aurreratuan Institutuak duen ibilbide sendoarengatik jaso zuen aintzatespena

# 4. ZERBITZUAK ETA PRODUKTUAK

## PRESTAKUNTZA

### PRESTAKUNTZA OROKORRA 2019

*Prestakuntza-programak eta planak*

- Prestakuntza-modalitatearen arabera:
  - Onlineko prestakuntza.
  - Aurrez aurreko prestakuntza.
  - KnowInn programa: prestakuntza-ekintza (proiektuak ezartzeko prozesuekin batera doan prestakuntza).
- Irismenaren arabera:
  - Orokorrak edo zeharkakoak.
  - Administrazio batek edo administrazio-unitate batek berezkoak dituenak.

*Prestakuntza-beharren diagnostikoak*

Administrazio edo erakunde publiko batek eskatuta, kolektiboaren prestakuntza-beharrak aztertzen dira metodologia desberdinak erabiliz.

*Prestakuntzaren ebaluazioa*

Ikaskuntzaren ebaluazioa egiten da, probetxua ebaluatzeko estandarrak aplikatuz.

Transferentziaren ebaluazioa: ebaluatzea prestakuntzaren bitartez eskuratutako ezagupenak eta trebeziak lanpostura transferitu diren.

*Prestakuntza-ekintzen homologazioa*

Homologazio aginduan oinarrituta, ikastaroa bera ziurtatzen da.

### *Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan garapen profesionala lantzeko prestakuntza-programa*

Programa honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten dutenen garapen profesionala bultzatzeko beharrezko prestakuntza bideratzea.

Hau da Prestakuntza-programaren xedea: Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek herritarrei ematen dizkieten zerbitzuak etengabe hobetzea.

## 2. TAULA. Prestakuntzaren programazioa eta jarraipena (2016-2019)

| ADIERAZLEAK | 2016 | | | 2017 | | | 2018 | | | 2019 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Aurreikusitako prestakuntza ekintzen kopurua | 748 | | | 686 | | | 704 | | | 692 | | |
| Egindako ikastaroen kopurua | 732 | | | 659 | | | 657 | | | 660 | | |
| Ikastaroen betetze-maila (%) | % 97,9 | | | % 96, 1 | | | % 90,67 | | | % 95,38 | | |
| Matrikula kopurua | 14.650 | | | 14.214 | | | 13.148 | | | 13.649 | | |
| | E=4.688 | G=3.995 | DG*=5.967 | E=2.702 | G=1.031 | DG*=10.481 | E=1.224 | G=2.997 | DG*=8.927 | E=3.573 | G=1.453 | DG*=8.623 |
| Ikasleen asebetetzearen adierazle orokorra | 7,25 | | | 7,93 | | | 8,00 | | | 8,2 | | |
| Irakasleekiko asebetetzearen adierazle orokorra | 8,59 | | | 8,37 | | | 8,5 | | | 8,7 | | |

*E= emakume / G= gizon / DG= daturik gabe

## 3. TAULA. Prestakuntzaren ebaluazioa

| | |
|---|---|
| Helburuen lorpena duten prestakuntza-ekintzen kopurua | 597 |
| Matrikula kopuru osoaren gaineko aprobetxamendu-ziurtagirien ehunekoa | % 87 |
| Matrikula kopuru osoaren gaineko aprobetxamendu-ziurtagirien ehunekoa (on-line eta ikastaro mistoetan) | % 76 |

## 4. TAULA. Homologazioa

| | |
|---|---|
| Homologazio-espedienteen kopurua | 130 |
| Behin-behineko homologazioa duten prestakuntza-ekintzen ehunekoa | % 95 |
| Behin betiko homologazioa duten prestakuntza-ekintzen ehunekoa | % 80 |
| Erakunde eskatzaileen kopurua | 10 |

## 5. TAULA. Garapen profesionala lantzeko prestakuntza-programa (2016-2019)

| Erakundeak | Prestakuntza-planak | | | | Langileak* | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2016 | 2017 | 2018 | 2018 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
| Udalak | 28 | 26 | 30 | 27 | 9.621 | 10.325 | 11.129 | 11.440 |
| Foru Aldundiak | 3 | 3 | 3 | 3 | 8.285 | 8.304 | 8.240 | 8.701 |
| EHU/UPV | 1 | 1 | 1 | 1 | 1.547 | 1.547 | 1.547 | 1.547 |
| Eusko Jaurlaritzaren sailak | 5 | 5 | 4 | 3 | 3.409 | 1.697 | 1.463 | 1.482 |
| Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoak | 3 | 4 | 4 | 4 | 1.083 | 1.138 | 1.120 | 1.119 |
| Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia | 1 | 1 | 1 | 1 | 8.000 | 11.950 | 11.950 | 11.950 |
| Osakidetza | 1 | 1 | 1 | 1 | 25.799 | 26.400 | 26.400 | 26.400 |
| Irakasleen prestakuntza | 1 | 1 | 1 | 1 | 19.991 | 20.048 | 20.048 | 20.048 |
| Guztira | 43 | 42 | 45 | 41 | 77.735 | 81.409 | 81.897 | 82.687 |

* Prestakuntza-planetako hartzaileak

## TABLA 6. Jardunaldi eta mintegiak

| Izenburua | Data | Lekua | Parte-hartzaileen kopurua |
|---|---|---|---|
| Herri administrazioetako hautaketa-prozesuak: Europar Batasuneko esperientziak, planteamendu berriak garai berrietarako | Apirilak 10 eta 11a | Vitoria-Gasteiz | 150 |
| Europatik datorkigu-eta: XXI. mendeko kontratazio publiko estrategikoa | Azaroaren 13a eta 14a | Bilbo | 92 |
| Gobernu on baten erronka eta Administrazio on baterako eskubidea: paradigma-aldaketa | Abenduaren 4a | Vitoria-Gasteiz | 50 |




Maite Iruretagoiena IVAPeko zuzendariak eta Josu Erkoreka Gobernantza Publikoko eta Autogobernuko sailburuak hautaketa-prozesuei buruzko jardunaldia aurkeztu zuten

## EVETU: HIRIGINTZA ETA INGURUMENARI BURUZKO PRESTAKUNTZA

**Modulu bidezko ikastaroak: «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak ikastaroa»**

Ikastaroa honela dago egituratuta:

1. Sei ikasketa-modulu teoriko-praktikoak egitea (700 ordu); deialdi bakar batean egin ahal dira guztiak, edo moduluka banatutako deialdietan. Bertaratze- eta aprobetxamendu-baldintzak betez gero (gutxienez% 80ean bertaratzea, ebaluazio-azterketa eta lanak gainditzea), egindako modulu bakoitzaren aprobetxamendu-egiaztagiria ematen da.

2. Hirigintzako Goi Mailako Ikastaroa eta banakako ikerketa-lana egitea edo.

3. Aukerako praktikak, erakunde nahiz enpresetan (300 ordu).

Betekizun guztiak gaindituta, IVAPek Hirigintzako Diploma ematen du.

2019an, bi jarduera egin dira. Batetik, 2018-2019 ikasturtean hasi zen «XLIV. (44) Hirigintza eta Lurralde Ikasketak Ikastaroa» amaitu da (2018-2019, 700 orduko iraupena eta 300 orduko praktikaldia), ikastaro horretako lau modulu egin dira, Bilbon hiru (IV, V eta VI) eta IV moduluko bigarren edizio bat Donostian. Bestetik, «XLV.(45) Hirigintza eta Lurralde Ikasketak Ikastaroa» hasi da (2018-2019 ikasturtea, 700 orduko iraupena), eta hiru modulu egin dira (I, II, III).

Matrikula-bekak: bost beken deialdia egin da «XLV.(45) Hirigintza eta Lurralde Ikasketak Ikastaroa» (2019-2020) egiteko eta bostak esleitu dira.

Praktikak: XLIV. (44) Hirigintza eta Lurralde Ikasketak Ikastaroa» (2018-2019) egin duten ikasleek 300 orduko hautazko praktikak egin ahal izan dituzte erakundeetan zein enpresetan. Sei ikasle aritu dira praktiketan (lau emakume eta bi gizon, bost arkitekto eta juridiko bat), eta toki hauetan egin dituzte: Santurtzi, Arrankudiaga, Bilbo, Donostia, Arrasate Laudioko udaletan.

Ezin izan zaie erantzun udaletako eskari guztiei, ez zegoen-eta nahikoa ikaslerik.

### Ikastaro monografikoak

Hirigintzari, lurralde-antolamenduari eta ingurumenari buruzko ikastaro monografikoak eta jardunaldiak egin dira:

- Jornadas sobre novedades en Urbanismo 2019 (Bilbo).
- Gestión de la Rehabilitación y Regeneración Urbana (Bilbo)
- Curso Superior de Urbanismo (Bilbo).
- Valoraciones Urbanísticas (Bilbo, bi edizio).
- Curso Básico de Derecho urbanístico (Bilbo eta Donostia, bi edizio).
- Hacienda Local, especial referencia al urbanismo (Bilbo).
- Actualización de normativa sobre la inspección técnica de edificios (ITE). (Bi edizio, Bilbo eta Donostia).
- Licencias y comunicación previa (Bilbo).

**7. TAULA. EVETUKO datuak 2019***

| | Prestakuntza-ekintzak | Helburuak zehaztuak dituzten prestakuntza-ekintzak | Matrikulak, guztira | Zenbat emakume matrikulatuta | Eskainitako ordu-kopurua | Ziurtagirien % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Modulu bidezko ikastaroak. Bilbo | 6 | 6 | 174 | 102 | 700 | % 98 |
| Modulu bidezko ikastaroak. Donostia | 1 | 1 | 20 | 11 | 146 | % 100 |
| Ikastaro monografikoak | 11 | 9 | 262 | 156 | 254 | % 92 |
| Guztira | 18 | 16 | 456 | 269 | 1.100 | % 96,66 |

*Datuak urte naturalean

## 7. TAULA. EVETUKO DATUAK 2018*

| | Prestakuntza-ekintzak | Helburuak zehaztuak dituzten prestakuntza-ekintzak | Matrikulak, guztira | Zenbat emakume matrikulatuta | Eskainitako ordu-kopurua | Ziurtagirien % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Modulu bidezko ikastaroak. Bilbo | 6 | 6 | 173 | 107 | 700 | % 100 |
| Modulu bidezko ikastaroak. Donostia | 2 | 2 | 36 | 25 | 276 | % 100 |
| Ikastaro monografikoak | 10 | 8 | 195 | 116 | 261 | % 90 |
| Guztira | 18 | 16 | 404 | 148 | 1.237 | % 95 |

* Datuak urte naturalean.

## 7. TAULA. EVETUKO DATUAK 2017*

| | Prestakuntza-ekintzak | Helburuak zehaztuak dituzten prestakuntza-ekintzak | Matrikulak, guztira | Zenbat emakume matrikulatuta | Eskainitako ordu-kopurua | Ziurtagirien % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Modulu bidezko ikastaroak | 6 | 6 | 236 | 126 | 700 | % 97,45 |
| Ikastaro monografikoak | 7 | 4 | 254 | 123 | 133 | % 83,46 |
| Guztira | 13 | 10 | 490 | 249 | 833 | % 90,45 |

* Datuak urte naturalean.

## 7. TAULA. EVETUKO DATUAK 2016*

| | Prestakuntza-ekintzak | Helburuak zehaztuak dituzten prestakuntza-ekintzak | Matrikulak, guztira | Zenbat emakume matrikulatuta | Eskainitako ordu-kopurua | Ziurtagirien % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Modulu anitzeko ikastaroak | 6 | 6 | 193 | 114 | 484 | % 96,89 |
| Ikastaro monografikoak | 10 | 4 | 219 | 123 | 148 | % 97,26 |
| Guztira | 16 | 10 | 412 | 237 | 632 | % 97,08 |

* Datuak urte naturalean.




IVAPek antolatutako kontratazio publikoari buruzko prestakuntza-saioa

## HIZKUNTZA-PRESTAKUNTZA

**Hizkuntza-eskakizunak lortzera bideratutako euskara-ikastaroak**

- Oinarrizko ikastaroak, 3. hizkuntza-eskakizunaren gaitasun mailara artekoak:
  - Egunean bi zein bost ordutako ikastaroak dira. A1etik C1 mailara artekoak. Urrian hasi eta maiatz-ekainera bitartekoak; horrez gain, udako ikastaroak ere eskaintzen ditugu.
  - Aurrez aurrekoak nahiz autoikaskuntzakoak izaten dira.
- Goi mailakoak, 4. hizkuntza-eskakizuna prestatzeko ikastaroak:
  - Aurrez aurrekoak nahiz autoikaskuntzakoak izaten dira, astean hiru egunetan eta C2 mailakoak.

Deialdi bakoitzean zerbitzu zuzendariak edo erakundeko arduradunak baimendutako modulua eska dezake langileak. IVAPek eskainitako modulu horiek lanorduetan edo lanorduz kanpo egin daitezke. Hala ere, IVAPekin hitzarmena duten erakundeetako langileek autoikaskuntza lanorduz kanpo bakarrik egin dezakete. Matrikula orriaren bidez lanorduetan edo lanorduz kanpo ikasiko duen langilea HABEk homologatutako edozein euskaltegitan matrikula daiteke.

**Udaletan eta mankomunitateetan ordezkapenak egiteko dirulaguntzak**

Euskalduntzeko ikastaroetara joaten den langileari ordezkoa jartzen baldin badiote, azken honen kontratazioaren kostea ordaintzeko dirulaguntzak ematen dizkie IVAPek hizkuntza-prestakuntza eta normalizazioaren arloan hitzarmena izenpetuta daukaten toki-administrazioei.

## ELEBI programa

ELEBI programak berariazko laguntza eskaintzen die erabilera-plan barruan sartuta dauden Eusko Jaurlaritzako langileei. Prestakuntza hori ahozko jarduna zein idatzizko dokumentuak euskaraz egin behar dituzten langileentzat da eta laneko jardunaren arabera, antzeko interes komunikatiboak dituztenekin osatzen dira mintegiak: dirulaguntzak kudeatzen dituzten langileak, lege-aholkulariak, estatistikariak, web-kudeatzaileak, harrera postuetan dauden langileak.

Mintegi horiek sail bereko partaideek edo sailartekoek osatzen dituzte. Alegia, sail ezberdinetakoak ere izan daitezke partaideak, baldin eta lan eginkizun berberak badituzte.

Oro har, mintegietan lau eta sei partaide bitarteko lan-taldeak osatzen dira, astean ordu eta erdiz, batez beste. Taldeko prestakuntzaz gain, langile bakoitzak hilean bi orduko tutoretza pertsonala izaten du tutorearekin.

Tutoreekin batera egitasmoaren beste eragileak sailetako normalkuntzako teknikariak dira, IVAPekin lankidetzan aritzen baitira mintegiak antolatzeko. Izan ere, beraiek ezagutzen dituzte ondoen langileen benetako behar komunikatiboak.

## Lan-jardunari lotutako berariazko hizkuntza prestakuntza

Euskara lan hizkuntza izateko helburua betetzeari begira antolatzen da berariazko hizkuntza prestakuntza.

Euskararen erabileran eragiteko xedez eskaintzen dira bai aurrez aurreko, bai lineako eta baita jardun biko ikastaroak ere, administrazioko langileentzat (Ikusi 11. taula).

### 8. TAULA. Hizkuntza-prestakuntzako ikasleak (2018/2019 ikasturtea)

| | Astean, 10 ordu | 25 ordu, Barnetegia | Autoikaskuntza | 4. HE | Udako ikastaro | Besterik | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 210 | 56 | 64 | 61 | 45 | 42 | 478 |
| Foru administrazioak | 78 | 13 | 7 | 16 | 16 | 4 | 134 |
| Toki administrazioak | 219 | 19 | 52 | 31 | 48 | 45 | 414 |
| Osakidetza | 677 | 76 | 218 | 9 | 126 | 287 | 1.393 |
| UPV/EHU | 32 | 17 | 1 | 3 | 3 | 2 | 58 |
| Beste batzuk | 53 | 6 | 7 | 3 | 8 | – | – |
| Guztira | 1.269 | 187 | 349 | 123 | 246 | 376 | 2.550*<br>E=1.785<br>G=765 |

*E= emakume / G= gizon

## 9. TAULA. Toki-administrazioetako ordezkapenetarako dirulaguntzak

| | |
|---|---|
| Diru-laguntzen kopurua guztira | 9.743 |
| Hitzarmena sinatuta duten erakundeak guztira | 186 |

## 10. TAULA. ELEBI

| | |
|---|---|
| Mintegi kopurua | 10 |
| Langile kopurua | 55 |

## 11. TAULA. Hizkuntza-prestakuntza, euskararen erabilera-planen barruan daudenentzat

| | Taldeak | Ikasleak |
|---|---|---|
| 2.HE: Idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa | 1 | 9 |
| 3.HE: Idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa | 5 | 53 |
| 4.HE: Idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa | 5 | 52 |
| 2.HE: Ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa | 2 | 16 |
| 3.HE: Ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa | 4 | 30 |
| 4.HE: Ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa | 4 | 27 |
| 2.HE: Birziklatze ikastaroa | 3 | 30 |
| 3.HE: Birziklatze ikastaroa | 5 | 60 |
| 4.HE: Birziklatze ikastaroa | 2 | 16 |
| Ahozkotasuna sendotzeko ikastaroa | 3 | 33 |
| Administrazioan nola idatzi | 3 | 29 |
| Aurrez aurreko eta telefono bidezko harrera, oharrak eta mezu elektronikoak | 6 | 54 |
| Bileren kudeaketa eta hizkuntza-estrategiak | 2 | 21 |
| Curso de redacción administrativa | 2 | 25 |
| Esaldi-egitura argiaren bila | 1 | 6 |
| Genero ikuspegia hizkuntza politikan | 1 | 22 |
| Herri-hizkerak administrazioan | 1 | 11 |
| Izen-sintagmaren antolaera: aukerak, mugak eta jokabideak | 1 | 20 |
| Jendaurrean efikaziaz hitz egitea | 2 | 17 |
| Nola sortu testu elebidunak itzulpenetara jo gabe | 1 | 5 |

| | Taldeak | Ikasleak |
|---|---|---|
| Oinarrizko hizkuntza baliabideak | 3 | 17 |
| Soziolinguistika: aldagai nagusiak | 2 | 27 |
| Testuak zuzentzeko moduez | 2 | 16 |
| Testu-joskeraren oinarri nagusiak | 1 | 13 |
| Udal baimenak eta lizentziak; herritarrentzako erantzunak | 2 | 11 |
| Wordfast, elebietan idazten laguntzeko tresna | 1 | 13 |
| Zergatik ez? Motibazioaren inguruko saioa | 1 | 14 |
| Zuzenbideko profesionalak trebatzen: euskarazko baliabideak eta terminologia | 1 | 10 |
| 2.HE: Idatzizko azterketa. Gutuna eta artikulua lantzen | 1 | 11 |
| 3.HE: Idatzizko azterketa. Gutun formala eta iritzi-artikulua lantzen | 2 | 32 |
| 4.HE. Iritzi-artikulua idazteko estrategia | 2 | 19 |
| Ahozko jarduna nola hobetu azterketetatik harantzago | 1 | 7 |
| Administrazioan komunikazioa erraztu | 2 | 27 |
| Gutuna eta ofizioa | 2 | 13 |
| Bilera akta, iragarkia eta txostena | 2 | 29 |
| Bilera-deia, eskabidea eta ziurtagiria | 1 | 14 |
| Cómo escribir para la web | 2 | 27 |
| Euskarazko baliabide eta tresna informatikoak (lineakoa) | 3 | 31 |
| Euskaltzaindiaren arauak | 3 | 35 |
| Hizkera juridikoa | 1 | 11 |
| Mezu elektroniko egokiak idatzi | 8 | 102 |
| Weberako nola idatzi | 2 | 18 |
| GUZTIRA | 99 | 1.033 |

## PERTSONEN HAUTAKETA ETA KONPETENTZIEN EBALUAZIOA

### *Epaimahaietan parte hartzea*

Euskal Funtzio Publikoaren Legeak araututakoa betez, IVAPek kide titular eta ordezko bana izendatzen ditu euskal administrazio publikoetako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izateko deitzen diren hautaketa-prozesuak aurrera eramaten dituzten epaimahaietan parte hartzeko.

### *Probak prestatzea edota zuzentzea*

Zenbait administraziok eskatuta, hautaketa-prozesuetako probak diseinatzen, aplikatzen eta zuzentzen ditu IVAPek.

### *Lankidetza eta aholkularitza hautaketa-prozesuetan*

- Hautaketa-prozesuari ekin aurretik, IVAPek laguntza- eta aholkularitza-lana eskaintzen du (oinarriak aztertu, ikasgaiak taxutu…); baita prozesuan zehar ere (logistika, lokalen kudeaketa, probak…).
- Informazioa bidaltzea (oinarrien ereduak, txosten juridikoak, eta lan-poltsetan lanerako prest dauden langileen izenak).

### *Enplegu publikoko eskaintzak, prozesu handiak*

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionario edo lan-kontratuko langile finkoa izateko antolatzen diren hautaketa-prozesuen kudeaketa egiten du IVAPek.

### *Lan-poltsak osatzea*

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aldi baterako langile-beharrei erantzuna emateko lan-poltsak eratzeko hautaketa-prozesuen kudeaketa egiten du IVAPek.

### *Lan-eskaintza publikoei buruzko informazioa ematea, eta informazioaren harpidedun egiteko aukera ematea*

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek egindako enplegu-eskaintzei buruzko informazio egoki eta eguneratua emateaz, eta horren gaineko azken berriak Interneten bidez jaso ahal izateko harpidetza egiteko aukera eskaintzeaz arduratzen da IVAP.

### *Proba psikoteknikoak eta elkarrizketak egitea*

Lanpostuen egokitasuna ebaluatzeko probak taxutzea, aplikatzea eta zuzentzea edo euren ezaugarri tekniko eta pertsonaletara doitzeaz arduratzen da IVAP: elkarrizketak, proba psikoteknikoak eta abar.

**12. TAULA. Hautaketa-prozesuetako datuak (2016-2019)**

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| Epaimahai kalifikatzaileetan parte-hartzeak (prozesu kopurua) | 124 | 224 | 227 | 225 |
| Epaimahai kalifikatzaileetan parte-hartzeak (erakunde kopurua) | 61 | 63 | 76 | 71 |
| Epaimahai arruntetarako izendapenak (titularrak eta ordezkoak) | 136 | 328 | 322 | 362 |
| Euskara probarako izendapenak (titularrak eta ordezkoak) | 198 | 310 | 260 | 284 |

## 13. TAULA. Lankidetza-motak (2016-2019)

| | 2016 | | 2017 | | 2018 | | 2019 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lankidetza jaso duten erakunde publikoak | 53 | | 52 | | 59 | | 55 | |
| Azterketak prestatzea (test eta garapen erakoak) | 59 | % 42,45 | 58 | % 25,11 | 152[1] | % 47,80 | 84[2] | % 34,85 |
| Irakurgailu optikoz azterketak zuzentzea | 15 | % 10,79 | 38 | % 16,45 | 37 | % 11,64 | 38 | % 15,77 |
| Proba psikotekniko eta elkarrizketak egitea | 47 | % 33,81 | 113 | % 48,92 | 97 | % 30,50 | 72[3] | % 29,88 |
| Bestelako aholkularitzak (oinarriak aztertzea, txostenak, aholkularitza orokorra...) | 18 | % 12,95 | 22 | % 9,52 | 32 | % 10,06 | 47 | % 19,50 |
| Lan-poltsetako zerrendak bidaltzeko eskaerak | 51 | | 277 | | «+/- 450» | | 492 | |

[1] Osakidetzakoak barne (89)
[2] Osakidetzakoak barne (26)
[3] Nahiz eta prozesuen kopurua jaitsi, izangaien kopurua asko igo da.

## 14. TAULA. Enplegu publikoko eskaintzak (2016-2019)

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| Lan-poltsak handitzeko prozesu kopurua | 10 | 8 | 0 | 6 |
| Lan-eskaintzetarako harpidedunak | 81.664 | 85.125 | 92.571 | 97.790 |



Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdia

# HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK

## Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko ohiko deialdiak

Ohiko deialdiak sei hilabetean behin antolatzen ditu IVAPek Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileentzat. Horrezaz gainera, Osakidetzako bi deialdiak kudeatzen ditu IVAPek, kudeaketa-gomendioaren bitartez. Hauek dira 2019 egindako deialdien emaitza orokorrak.

### 15. TAULA. Emaitza orokorrak

| Deituak | Aurkeztutakoak | | Gainditutakoak | |
|---|---|---|---|---|
| 8.317<br>E: 2.394/G: 2.039/DG: 3.884 | 5.554<br>E: 1.674/G: 1.372/DG: 2.508 | % 66,78 | 576<br>E: 161/G: 142/DG: 273 | % 10,37 |

*E= emakume / G= gizon / DG= daturik gabe

### 16. TAULA. Emaitza orokorrak deialdiko

| Deialdia | Aurkeztutakoak | Gainditutakoak |
|---|---|---|
| Lehen deialdia<br>(IVAPekoa eta Osakidetzakoa) | 3.194<br>E: 977/G: 797/DG: 1.420 | 377 (% 11,8)<br>E: 103/G: 94/DG: 180 |
| Bigarren deialdia<br>(IVAPekoa eta Osakidetzakoa) | 2.360<br>E: 697/G: 575/DG: 1.088 | 199 (% 8,4)<br>E: 58/G: 48/DG: 93 |

*E= emakume / G= gizon / DG= daturik gabe

## Ohiko deialdien azterketak egiteko egunak

2019_1 deialdiko azterketak: azterketa idatzia maiatzaren 4an egin zen eta ahozko azterketak ekainaren 13an eta 14an.

2019_2 deialdiko azterketak: azterketa idatzia urriaren 26an egin zen eta ahozko azterketak abenduaren 12 eta 13an.

## Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdi bateratuak

Administrazio Publikoko erakundeek (udalak, foru aldundiak...) lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuak deitzen dituztenean, IVAPi eskatzen diote hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak egiteko eta zuzentzeko.

Hautaketa-prozesuotako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko, deialdi bateratuak antolatzen ditu IVAPek, bat edo bi hilean. Eraginkortasunari begira, hainbat administraziori edo hautaketa-prozesuri lotutako hautagaiek hartzen dute parte deialdi berean.

**17. TAULA. Deialdi bateratuak**

| Lurraldea | Deialdi kopurua | | Deitutakoak | Aurkeztutakoak | Gainditutakoak |
|---|---|---|---|---|---|
| Araba | 4 | 12 | 1.106<br>E: 224/G: 144/DG: 738 | 658 (% 59,49)<br>E: 146/G: 85/DG: 427 | 93 (% 14,13)<br>E: 5/G: 13/DG: 75 |
| Bizkaia | 4 | | | | |
| Gipuzkoa | 4 | | | | |

E= emakume / G= gizon / DG= daturik gabe

2019an, deialdi orokor zein bateratuen bidez, 669 azterketarik egiaztatu dute hizkuntza-eskakizunen bat.

Ohiko deialdiez eta deialdi bateratuez gainera, 2019an berariazko bi deialditan ere aplikatu dira hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak: Ertzaintzaren 28. promozioko EPEn eta Eusko Jaurlaritzaren menpekoen lan-poltsetan (2018-19). Lehenbizikoan, 262 hautagaik parte hartu dute eta 76k gainditu dute (% 29); bigarrenean, 317 hautagai aurkeztu dira eta 118k gainditu dute (% 37,22). Hortaz, guztira, 861 azterketari dira 2019an hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu dutenak.

## AZTERLAN ETA IKERKUNTZAREN SUSTAPENA

### IKERKETARAKO LAGUNTZAK

Administrazio Publikoarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerlanak egiteko deialdia diseinatzea eta kudeatzea. Deialdian aurkeztutako azterketek eta ikerlanek aitaturiko gaiak jorra ditzakete hainbat ikerkuntza ikuspuntutik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio eta administrazio publikoen jardunaren arloarekin lotura izan behar dute.

### IKERKETA SARIAK

Jesús María Leizaola sarirako deialdia diseinatzea eta kudeatzea, Euskal autonomiarekin zerikusia izanik edo horren azterketarako eta sakontzerako balioa izanik, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako ikerlanetarako.

### LEGE ETA ANTOLAKUNTZA ARLOKO AHOLKULARITZA LANAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak antolatzearekin eta hobetzearekin zerikusia duten gaien gainean, eskatu dizkiguten azterlanak eta txostenak egitea, aholku-eskeei erantzutea eta gai horiei buruzko arauen aurre-egitasmoak prestatzea.

### HERRI ARDURALARITZAZKO EUSKAL ALDIZKARIA

Herri Arduralaritzazko Euskal Aldizkariaren idazkaritza teknikoaren kudeaketa.

## PERTSONAK ETA ANTOLAKUNDE PUBLIKOAK KUDEATZEKO EUSKAL ALDIZKARIA

Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkariaren idazkaritza teknikoaren kudeaketa.

### 18. TAULA. Ikerketa-lanak eta laguntzak

| | |
|---|---|
| Liburutegian gordetako ikerlanak.<br>Deialdia: 2018-2019 | «El concierto económico: ¿Una herramienta influyente en nuestro desempeño?» (Porto Gómez, Igone; Zabala Iturriagagoitia, Jon Mikel; Duarte Bom, Pedro; Dorronsoro Artabe, Guillermo).<br>«Justiciabilidad de las modificaciones constitucionales. Garantías jurisdiccionales nacionales, internacionales y supranacionales» (Ugartemendia Eceizabarrena, Juan Ignacio; Donaire Villa, Francisco Javier). |
| Esleitutako laguntzak lanak egiteko.<br>Deialdia: 2019-2020 | «Salud en todas las políticas: una estrategia gubernamental para mejorar las políticas de Euskadi» (Maite Morteruel Arizcuren, Amaia Bacigalupe De La Hera, Noemí Bergantiños Franco, Anna Giné March, Unai Martín Roncero y Elena Aldasoro Unamuno).<br>«La inteligencia artificial en el sector público: especial incidencia en los ámbitos tributario y jurisdiccional» (Miren Josune Pérez Estrada e Irune Suberbiola Garbizu). |

2019ko Leizaola saria:

- Epaimahaiak, aho batez, erabaki du 2019ko Leizaola saria eta saria horren akzesita hutsik uztea.

## JARDUNALDI ETA MINTEGI BEREZITUAK

Topaketak taxutzea eta antolatzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren berezitasunekin, Administrazioaren Zientziari edo Zuzenbide Publikoari lotutako gaietan sakontzeko.

### 19. TAULA. Jardunaldi eta mintegi berezituak

| Izenburua | Data | Lekua | Parte-hartzaileen kopurua |
|---|---|---|---|
| Europar Batasuneko zuzenbidearen eragina Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan | Maiatzak 9a eta 10a | Donostia-San Sebastián | 45 |
| Europar batasuneko etorkizuna. Erronkak eta desafioak. | Uztailak 8a, 9a eta 10a | Donostia-San Sebastián | 70 |
| Despopulazioa eta landa garapena, Arabako Lurralde Historikoan | Urriak 18a eta 19a | Santa Cruz de Campezo/ Santikurutze Kanpezu | 90 |



Europako hainbat lekutatik etorritako adituek hautaketa-prozesuetan duten eskarmentua partekatu zuten, EIPA Europako Administrazio Publikoko Institutuarekin batera IVAPek antolatutako jardunaldietan

## ARGITALPENAK ETA LIBURUTEGIA / DOKUMENTAZIO-GUNEA

### ARGITALPENEN EDIZIOA ETA SALMENTA

*Lanak, txostenak eta liburuak argitaratzea*

Argitaratze-proiektuen azterketa, erakundearen argitalpenenen edizioaren segimendua, argitalpen horien salmenta eta banaketa.

2018an, argitaratutako lanen zehaztapenak jarduera-txosten honen bosgarren kapituluan jaso dira.

### LIBURUTEGIA / DOKUMENTAZIO-GUNEA

*Erreferentzia eta informazio bibliografikorako zerbitzua*

Liburutegia / Dokumentazio-guneko materialak eskuratzeko eta erabiltzeko arauen, haien baliabideen eta zerbitzuen berri ematea erabiltzaileei, baita informazioa eta agiriak bilatzen laguntzea ere.

### *Funtsen kontsulta*

Bertako gelan Dokumentazio-guneko monografiak eta aldizkako argitalpenak kontsultatzeko aukera ematea.

### *Mailegu-zerbitzua*

Funts monografikoak bertatik atera eta, maileguaren bidez, etxera eramateko aukera ematea.

### *Liburutegi / Dokumentazio-guneen arteko mailegu-zerbitzua*

Erabiltzaileak eskatutako dokumentuak beste liburutegi edo dokumentazio-gune batzuen bitartez eskuratzea eta, era berean, gainerako liburutegiek guri eskatutakoa ere euren esku jartzea. Zerbitzu hau Eusko Jaurlaritzako langileei baino ez zaie eskaintzen.

### *Informazioaren gaikako hedapena egiteko zerbitzua*

Aldiro-aldiro, profil batzuk ezarrita, IVAPek espezializazio-arlotzat dituen gaiei buruzko informazio buletinak egitea.

### *Web bidezko zabalkunde-zerbitzua*

IVAPen webgunearen bitartez honako produktu hauek zabaldu nahi dira:

- Liburutegi / Dokumentazio-guneko katalogoa.
- Dokumentu berrien buletina.
- Aukeratutako Informazioaren Hedapenerako buletinak.
- Esteka interesgarriak.

### 20. TAULA. Liburutegia / Dokumentazio-gunearen datuak

| | |
|---|---|
| Erreferentzia eta informazio bibliografikorako zerbitzua | 87 |
| Funtsak kontsultatzea | 163 |
| Mailegu-zerbitzua | 829 |
| Dokumentazio-guneen arteko mailegu-zerbitzua | 4 |
| Informazioaren gaikako hedapena egiteko zerbitzua | 41 buletin |
| Web bidezko zabalkunde-zerbitzua | 10.941 kontsulta web-orrian |



Dokumentazio-guneak eskura ditu monografiak eta aldizkari espezializatuak

## ITZULPENGINTZA, INTERPRETAZIOA, TERMINOLOGIA ETA ADMINISTRAZIO-HIZKERA

Urte garrantzitsua izan da 2019koa IZOrentzat. Alde batetik, itzultzaile automatiko neuronala osatzen lagundu dugu, gure memorietan urte askoan metatutako itzulpenak erabilita. Uda partean hasi ginen probak egiten EJIErekin batera, eta urte-bukaerarako martxan zegoen tresna. Hamar bat milioi segmentu elebidun erabili dira itzultzaile automatiko neuronal juridiko-administratiboa elikatzeko. IAN sistemak martxan jartzea, IZOren ustez, lagungarria izango da hizkuntzaren normalizaziorako, batetik, IZOren lana arinduko duelako zuzenean IAN laguntza prozeduran txertatuta, eta, bestetik, funtzionarioak errazago izango dutelako euren kabuz bi hizkuntzetan jardun dezaten.

Horrez gainera, nabarmendu behar da itzulpenak kudeatzeko aplikazioa aldatu dugula erabat. R75 orain arteko aplikazioa kendu genuen, eta ITZULNET abiarazi genuen azaroan. Aitortu behar da, aldaketa sakona izan dela, eta errotik aldatu behar izan ditugula lan egiteko ohiturak. Sisteman aurkitutako hutsuneak eta hobetu beharrekoak atzeman, eta tresna hobetzen ari gara. Aurreikuspena da 2020an zehar erabat osatuta egotea aplikazio berria.

Azkenik, oso urrats garrantzitsua eman da 2019an, batetik, EHAAko arloan dagoen lan-karga arintzeko eta, bestetik, funtzionarioek euskal testugintzan duten parte-hartzea areagotzeko. IVAPeko eta EHAA-argitalpeneko arduradunek bilduta, erabaki zuten gaur egun dagoen

sinaduraren tramitazioa arintzea, ateak zabalik uzteko etorkizunerako. Horretarako, IZOren Dekretua aldatu behar da, eta helburu hori 2020an gauzatuko da, hauteskundeen osteko Gobernu berria osatzen denean.

Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) 23.078.956 hitz itzuli eta/edo berrikusi ditu 2019. urtean barrena; beraz, aurreko urteekin alderatuta, lehen aldiz egin du behera Eusko Jaurlaritzako itzulpen-zerbitzua zentralizatu zenetik; nabarmendu behar da, 2018. urteko datuekin konparatuta, bost milioi hitz gutxiago itzuli/berrikusi dela. Beherakada hori, itxuraz kontrako irudia har daitekeen arren, seinale ona da, eta IZOren helburuen artean egon da azken urteotan lan-karga jaistea. Hau da, funtzionarioek, hizkuntza-normaltasunaren bila, gehiago moldatu behar dute lan-jarduna ele bietan, eta IZOk, normalizazioaren onerako, gehiago zentratu behar luke euskaraz jarduteko lagungarri diren lanetan, oinarrizko xedapenak itzultzen, esaterako. Zalantzarik gabe, funtzionarioek euskarazko lan-jarduna bere gain hartzeko orduan, zerikusi handia izan du iaz itzultzaile automatiko neuronala itzulpengintzaren munduan sartu izanak. Tresna horri esker, langileak, euskarazko gaitasun-maila on-xamar batekin, testuaren oinarri sendo bat lortzen du denbora laburrean, bigarren hizkuntzarako bertsioa prestatzerakoan.

Hitz-kopuruari begiratu beharrean, espediente-kopuruari begiratzen badiogu, hauek dira datuak: 2019. urtean, IZOk 12.285 itzulpen edo berrikuspen-eskaera jaso ditu guztira, eta, horietatik, 11.602 (%94a) onartu eta tramitatu dira. Gainerakoak, 683, baztertu egin dira, batetik, ofizioz, testuaren ezaugarriei, dokumentuaren formatuari eta abarri dagokienez definitutako baldintzak ez betetzeagatik, eta, bestetik, solaskideak hala eskatuta, eskaera-prozesua hasi ondoren. Eskaera-motaren arabera, berriz, 7.782 itzulpen eskaera (67%) izan dira eta 3.820 berrikusketa eskaera (33%).

## Itzulpengintza juridikoa

Administrazio publikoen jardunerako beharrezko diren lege-testuak euskaratzen eta, ondoren, sareratzen jarraitu dugu. IZOk, horrenbestez, legegintza-arloan 2019. urtean 13 lege-aurreproiektu izan ditu itzulgai Euskal Autonomia Erkidegoko jardunari dagokionez; Estatuko Aldizkari Ofizialerako, gainera, 286 aurkibide (I. atalarenak) eta 31 lege-xedapen euskaratu dira; hau da, lege organikoak, legeak, legegintzako dekretuak eta lege-dekretuak aintzat hartuta.

## IDABA

Itzulpenen datu-basean ia 10.500 testu ditu ikusgai gaur egun. Era berean, jarraitzen dugu IDABAren erabilera Administrazio osoan zabaltzen, udal eta foru-aldundietako erabiltzaileei ere ateak zabalduta. Urte osoan, 157.000 kontsulta izan ditu, hau da, aurreko urtean baino 20.000 gutxiago. Aztertu beharko da datozen urteetan, ea kontsulta-beherakada hori areagotzen den, eta zein izan litekeen arrazoia. Agian izan liteke funtzionarioek itzultzaile automatiko neuronalera jotzea zuzenean, IDABAn kontsultatu beharrean. Beste datu deigarri bat, esportazio-kopurua asko igo da 177tik 621era.

## Interpretazioa

IZOko interpreteek 2019an zehar hainbat batzorde eta bilera ofizialetan jardun dute euskararen eta gaztelaniaren artean aldibereko interpretazio-lana egiten, batez ere, Administrazioaren sail eta organoetan. Guztira, 136 saio izan dira, eta, horietatik erdiak, hiru Sailek eskatu dituzte: Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak, Hezkuntza Sailak eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak.

## Terminologia

Terminologia-atalak IZOkideei laguntza ematen jarraitu du; terminologiako kontsultei erantzun die, glosarioak osatu ditu eta itzultzaileekin elkarlanean jardun du hainbat itzulpenetan, terminologia-zalantzak argitzen. Era berean, irizpideen lantaldean hartu da parte itzultzaileentzako terminologia arauak zehazteko. Euskalterm terminologia datu-base publikoa elikatzen jarraitu du, eta, Terminologia Batzordeari lotuta, 2019. urtean Zirkulazio Hiztegiaren Batzorde Teknikoan egindako lana amaitu da. Dudanet bidez egin diren kontsultei erantzun zaie, eta, guztira, 138 erantzun eman dira; horietarik, 119 terminologiakoak. Oro har, arlo terminologikoa jorratu da zenbait gai lantzeko; esaterako, Feminismoaren eta Berdintasunaren Hiztegia landu da; Etxebizitzen bizigarritasun-baldintzei buruzko terminologia ere bai; URA ur-agentziaren glosarioa, bai eta Eusko Jaurlaritzako jantokiko menuen hiztegia ere.

## DUDANET

Doako kontsulta-zerbitzua da, administrazio- eta lege-arloko terminologian eta hizkeran sor daitezkeen zalantzak argitzeko. 2019an, 137 kontsultari erantzun diogu (Ikusi 27. taula).

## ELET

Aplikazio informatiko edo web-atari integratu honek hainbat hizkuntza-baliabide eskaintzen ditu euskaraz errazago lan egiteko; oso aplikazio erabilerraza eta intuitiboa da. Erabilerari dagokionez, 2019ko datuen arabera, 1.020 erabiltzaile izan ditu eta, guztira, 47.496 kontsulta egin dira.

## Itzultzaile, interprete eta terminologoen prestakuntza

Prestakuntza-ekintzei dagokionez, itzultzaileek eta, oro har, zerbitzuan diharduten langileek, 19 prestakuntza-ikastaro aukeratu dituzte, euskaratik gaztelerara itzultzeko teknikak, aplikazio informatikoak eta zerbitzuari lotutako bestelako gaiak lantzeko, eta saio horietan 43 pertsonak hartu dute parte, 46 langiletik.

## 21. TAULA. IZOren lan-karga

| | Espedienteak | EHAArako hitzak | Bestetarako hitzak | Hitzak, guztira |
|---|---|---|---|---|
| Itzultzeko eta berrikusteko onartutakoak | 11.602 | 8.498.106 | 14.580.850 | 23.078.956 |
| Itzultzeko onartutakoak | 7.782 | 3.600.706 | 14.438.888 | 18.039.594 |
| Berrikusteko onartutakoak | 3.820 | 4.883.960 | 155.402 | 5.039.362 |
| IZOk itzulitakoak | 4.717 | 3.038.609 | 8.279.298 | 11.317.907 |
| Hornitzaileek itzulitakoak | 3.069 | 562.097 | 6.159.590 | 6.721.687 |

## 22. TAULA. Itzuli/berrikusitako testu-motak

| | Eskaerak | Ehunekoak |
|---|---|---|
| Iragarkia | 3.657 | % 30 |
| Ebazpena | 1.866 | % 16 |
| Agindua | 893 | % 8 |
| Prentsa-oharra | 702 | % 6 |
| Txostena | 646 | % 6 |
| Gutunak, aktak... | 501 | % 4 |
| BOE | 332 | % 3 |
| Dekretua | 265 | % 2 |
| Legebiltzarreko kontuak | 180 | % 2 |
| Akordioa | 187 | % 2 |
| Bestelakoak | 2.373 | % 22 |

## 23. TAULA. Itzulpengintzako/berrikuspeneko bezero motak

| | Itzulitako hitzak | Ehunekoak hitzen inguruan | Espediente kopurua | Ehunekoak espedienteen inguruan |
|---|---|---|---|---|
| EAEko Administrazioa | 18.980.629 | 82% | 8.115 | % 70 |
| Erakunde publikoak | 3.724.812 | 16% | 3.122 | % 27 |
| Estatuko Administrazioa | 373.515 | 2% | 325 | % 3 |
| EAEko tokiko Administrazioa | 0 | 0% | 0 | % 0 |
| GUZTIRA | 23.078.956 | 100% | 11.602 | % 100 |

## 24. TAULA. Interpretazio-saioak (2016-2019)

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| Interpretazio-saioak | 121 | 124 | 146 | 136 |

## 25. TAULA. Interpretazio-saioak bezero motaren arabera

| Bezero mota | Saio kopurua | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| EAEko Administrazioa | 94 | % 69 |
| EAEko Tokiko Administrazioa | 19 | % 14 |
| Enpresak eta elkarteak | 23 | % 17 |

## 26. TAULA. Interpretazio-saioen bezeroak

| Bezeroak | Saio kopurua | Ehunekoak (%) |
|---|---|---|
| Gobernantza Publikoa eta Autogobernua | 32 | % 23 |
| Hezkuntza Saila | 18 | % 13 |
| Kultura eta Hizkuntza Politika | 13 | % 9 |
| Arabako Biltzar Nagusiak/Juntas Generales de Álava | 8 | % 6 |
| IMH - Makina Erremintaren Institutua | 7 | % 5 |
| Bestelakoak | 60 | % 43 |

## 27. TAULA. DUDANET

| Kontsulta mota | Kontsulta kopurua | Ehunekoak |
|---|---|---|
| Terminologia | 119 | % 86,8 |
| Itzulpengintza | 4 | % 10,2 |
| Administrazio-hizkera | 14 | % 2,9 |

### 28. TAULA. IDABA (2016-2019)

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| Dokumentu kopurua | 8.454 | 9.151 | 9.915 | 10.303 |
| Kontsulta kopurua | 113.669 | 141.772 | 179.334 | 156.956 |

### 29. TAULA. Itzulpengintza juridikoa

| | |
|---|---|
| Eusko Jaurlaritzaren lege-egitasmoekin lotutako testuak | 13 testu |
| Estatuko Aldizkari Ofizialaren euskarazko gehigarria | |
| – Eguneroko I. atalaren aurkibidea | 286 aurkibide |
| – Lege-mailako xedapenak | 31 textu |

## ***Administrazioa Euskaraz*** **aldizkaria**

Hiru hilabeterik behin argitaratzen den aldizkaria, 1993an sortua.

### 30. TAULA. Administrazioa Euskaraz aldizkaria

| Argitaratutako zenbakiak | Harpidedun kopurua |
|---|---|
| 103 | 14.769 |
| 104 | 14.774 |
| 105 | 14.797 |
| 106 | 14.792 |

- Aldizkariaren ale guztiak Interneten daude eskuragarri, IVAPeko web-orrian.
- Aldizkariarekin batera, *Solasaldiak* izeneko eranskina ematen dugu argitara. 30 orrial-deko eranskin horretan, ospe handiko pertsonaiaren bati egindako elkarrizketa sakon bat eskaintzen dugu urtean behin. 2019an, Teresa del Valle elkarrizketatu dugu.

## Bestelako argitalpenak

- *Administrazio-hizkera argia* bloga.

Administrazio Hizkera Atalak kudeatzen duen blogean 24 sarrera argitaratu ditugu, euskaraz zein gaztelaniaz.

**Emandako ikastaroak**

- «Hizkera argia euskadi.eus-en argitaratzen diren zerbitzu eta prozeduretan» ikastaroa (gazteleraz), 32 ordu.
- «Hizkera argia administrazio elektronikoaren garaian» (euskaraz) UEU, Iruñea, 10 ordu.




Urtzi Barrenetxea Administrazio Hizkera arloko teknikaria
«Hizkera argia administrazio elektronikoaren garaian» ikastaroa ematen.

## INFORMATIKAKO UNITATEA

**IVAPen aplikazio informatikoen kudeaketa eta mantentzea.**

Gutxi gorabehera 7.000 ordu inguru eman dira egokitzapen-lanetan. Izan ere, IVAPen 19 aplikazio eguneratu dira, hobekuntza teknologikoak egin dira eta, gainera, kudeaketa-lanetarako funtzionalitate berriak sartu dira.




Besteak beste, honako egokitzapen-lan hauek azpimarratu behar dira:

- Hautaketa-prozesuak kudeatzeko aplikazioan egokitzapenak egin dira: aurkezpena eta prozesuen kudeaketa hobetu dira eta ziurtagiri digitalen bidezko identifikazio-sistema bat (GILTZA) sartu da. Horrez gain, mugikorren bidez sartzeko aukera nabarmen hobetu da, erabileraren azterketa egin zenean ikusi zelako% 67k mugikorrak erabiltzen zituztela kasu hauetarako.
- Prestakuntza-ikastaroak kudeatzeko aplikazioan, aldiz, modulu bat garatu da, irakasleak sartzeko eta paperean egin ohi izan diren transakzio batzuk ezabatzeko erabiliko dena.

Migrazioei dagokienez, honako datu hauek nabarmendu behar dira:

- Prestakuntza kudeatzeko aplikazioa pixkanaka migratuko da UDAren frameworkera.
- Itzulpen-memorien Group Server zerbitzaria 2014ko bertsiotik 2019ko bertsiora migratu da.

## Garapen informatiko berriak

2019. urtean zehar, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek prestakuntza-ekintzak homologatzeko erabiltzen zuten prozedura digitalizatu da. Erakundeek ekintza horiek homologatzeko eska dezakete, eta prozesu osoa modu telematikoan egin. Halaber, ITZULNET aplikazioa jarri da martxan. Itzulpen-espedienteen kudeaketa integralerako baliabidea da, eta bertan sartzen dira: eskatzailearen profila, espedienteen kudeaketa eta itzulpen-fluxuak, enpresa-hornitzaileekiko harremana eta fakturazioa.

## Lankidetza informatikoa beste erakunde batzuekin.

Hautaketa-prozesuak kudeatzeko aplikazioa jarri da honako hauen esku: Gipuzkoako Batzar Nagusiak, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia eta Gazteriaren Foru Erakundea (Arabako Foru Aldundia). Horrela, deialdiak egiteko erabili ahal izango dute.



Halaber, Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta EJIErekin lankidetzan aritu da neurona-sare artifizialetan oinarritzen den itzultzaile automatiko bat entrenatzeko[1]. Itzultzaileak hizkera juridiko-administratiboa erabiltzen du; dagoeneko itzulpen-memorietako ia 6.000.000 segmentu ditu euskaraz eta gaztelaniaz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek eskura izango dute EUSKALSAREA izeneko sarearen bidez. Horri lotuta, itzultzaile neuronala TRADOS izeneko itzulpen-tresnara lotuko duen plugin[2] bat ere garatu da.

## IVAPen web-orria

2019. urtean zehar, IVAPen web-orriaren irisgarritasuna berregituratu, eguneratu eta egokitu da. 2019ko maiatzean hasi zen martxan, eta, harrezkero, 3.671.902 bisita izan ditu eta orri bakarraren ikustaldiak 2.561.404 izan dira. Beheko taulan ikus daitezke datu guztiak, berregituratzea egin baino lehen eta egin ostean.

**Webgunearen bisitak**




[1] Sistema konputazional horren bidez, sistemak ikasi egiten du eta osatzen joaten da (modu esplizituan eta matematiketako algoritmoak erabilita programatu beharrean), ohiko programazioaren bidez konponbideak eta ezaugarriak antzematea zaila den esparruetan.

[2] Pluginak aplikazioak dira, programa informatiko bati eransten zaizkionak beste funtzionalitate bat emateko edo ezaugarri berri bat gehitzeko.




IVAPeko web-orria eta *Administrazio-hizkera argia* bloga

# 5. ARGITALPENAK

## IVAPEK BAKARKA ZEIN BESTE BATZUEKIN BATERA ARGITARATUTAKO MONOGRAFIAK

SANTAMARÍA ARINAS , René Javier

Glosario comparado sobre la reforma del régimen jurídico del sector público y del procedimiento administrativo común.

Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2019. ISBN: 978-84-7777-563-8

JIMÉNEZ ASENSIO, Rafael

Introducción al nuevo marco normativo de la protección de datos personales en su aplicación al sector público

Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2019. ISBN: 978-84-7777-565-2

(HAINBAT EGILE) Zuzendariak: ALONSO GARCÍA, Ricardo eta UGARTEMENDIA ECEIZABA-RRENA, Juan Ignacio

El juez nacional en su condición de juez europeo. European Inklings (EUi) N° 17.

Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2019. ISBN: 978-84-7777-567-6

IVAP

Jardueren oroitza 2018 / Memoria de actividad 2018

Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2019. ISBN: 978-84-7777-571-3

IVAP

Udal Gida / Guía Local 2019

Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2019. ISBN: 978-84-7777-574-4

(HAINBAT EGILE) Zuzendariak: MERINO JARA, Isaac eta UGARTEMENDIA ECEIZABARRENA, Juan Ignacio

Concierto Económico y puntos de conexión

Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2019. ISBN: 978-84-7777-576-8

(HAINBAT EGILE) Zuzendariak: UGARTEMENDIA ECEIZABARRENA, Juan Ignacio eta SAIZ ARNAIZ, Alejandro

El futuro jurisdiccional de Europa

Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2019. ISBN: 978-84-7777-578-2

SANTAMARÍA ARINAS, René Javier

Curso Básico de Derecho Ambiental General

Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2019. ISBN: 978-84-7777-580-5

(HAINBAT EGILE) Zuzendariak: ALONSO GARCÍA, Ricardo eta UGARTEMENDIA ECEIZA-BARRENA, Juan Ignacio

(La incidencia del Derecho de la Unión Europea en la jurisdicción contencioso-administrativa.

Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2019. ISBN: 978-84-7777-582-9

VITORES CASADO, Imanol

Poder, sociedad y fiscalidad en el Señorío de Vizcaya durante la Baja Edad Media

Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2019. ISBN: 978-84-7777-569-0




IVAPeko argitalpen batzuk

## IVAPEN ARGITALPEN SERIATUAK

*Administrazioa Euskaraz*

Oñati (Gipuzkoa): Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea = Instituto Vasco de Administración Pública, 1993. ISSN: 1576-5563. 2019: 103, 104, 105 eta 106. zenbakiak; «Solasaldiak» 16. zenbakia

*Herri-Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria = Revista Vasca de Administración Pública*

Oñati (Gipuzkoa): Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea = Instituto Vasco de Administración Pública, 1981. Lau hilabetetan behin. ISSN: 0211-9560. 2019: 113, 114 eta 115. zenbakia

*Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria = Revista Vasca de Gestión de Personas y Organizaciones Públicas*

Oñati (Gipuzkoa): Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea = Instituto Vasco de Administración Pública, 2011. Sei hilabetetan behin. ISSN: 2173-6405. 2019: 16 eta 17. zenbakiak; eta 3. ale berezia

# 6. IVAPeko KIDEEN PARTE-HARTZEA BILTZARRETAN, JARDUNALDIETAN ETA ADITUEN FOROETAN

- Administrazio publikoko enpleguari buruzko tailerra. Bizkaiko Ekonomialarien Elkargoak antolaturiko jardunaldia.
- Administrazio publikoko enpleguari buruzko tailerra, Deustuko Unibertsitateko ikasleei zuzenduta.
- Administrazio publikoko enpleguari buruzko tailerra. Vitoria-Gasteizko Enplegu publikoari buruzko Foroa.
- Administrazio publikoko enpleguari buruzko tailerra. Deustuko Unibertsitateko Enplegu publikoari buruzko Foroa.
- Pertsonak eta Antolakunde Publikoak kudeatzeko Euskal Aldizkariaren hautaketako prozesuei buruzko ale bereziaren aurkezpena. Escuela de Técnica jurídica. Madril.
- IVAPen kudeaketa aurreratuaren aurkezpena. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- IVAPen kudeaketa aurreratuaren aurkezpena. Euskaliten Kudeaketa Aurreratuaren Europar Astea.
- «Nuevas estrategias para detectar las necesidades formativas» hitzaldia. Novagob biltzarra.
- «Desgaitasunetik gaitasunetara. Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat egokitutako 1. HE (B1)» hitzaldia. Hizkuntzen ebaluaziorako interes-taldea Estatuan-GIELEren III. Jardunaldia. «Balioztatze-prozesuak: erronkak eta aukerak».
- «Retos en la organización de los recursos humanos en las Administraciones» Biltzarrean parte-hartzea. Sevilla.

Halaber, Argentinako Santa Fe probintziako Legislaturaren ordezkariak etorri ziren IVAPera. Institutuak kudeaketa publikoan eta administrazio publikoko pertsonen prestakuntzan duen esperientzia ezagutu nahi izan zuten. Era berean, hizkuntzen koofizialtasunaren kudeaketa ezagutu nahian, Italiako ikertzaile eta EHUko kolaboratzaile baten bisita jaso genuen.

Berriro ere, IVAPek Aurrerabiderekin lankidetzan jardun zuen, kasu honetan, Eusko Jaurlaritzan kudeaketa aurreratuaren eredua ezartzeko gida egiten lagundu duelako.

Eta *benchmarking* jardueren artean, Baionako Euskararen Erakunde Publikoak IVAPen hizkuntza-eskakizunen azterketak kudeatzeko sistemari buruz izan duen interesa nabarmentzen dugu.

Aipagarria da, bestalde, Administrazio Hizkera arloko teknikariek Iruñeko udaleko langileei emandako ikastaroa, Udako Euskal Unibertsitatearekin elkarlanean. «Hizkera argia administrazio elektronikoaren garaian» izeneko prestakuntza, lau saiotan antolatu zuten Iruñeko udaletxean.



Maiteder Erkiaga eta Iratxe Etxebarria Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio Zerbitzuko Ebaluazio Arloko teknikariak, hitzaldia ematen GIELEren hizkuntza-ebaluazioaren eremuko III. jardunaldian.